

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URIZAHARREKO UDALA

#### Behin betiko onestea Udalaren 2019ko ekitaldirako aurrekontua

Udal honek, 2019ko martxoaren 7ko osoko bilkuran, erabaki zuen 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari hasierako onespena ematea, eta ez da aurkeztu inolako erreklamaziorik edo oharrik erabaki horren aurka. Beraz, bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko Foru Arauak (3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa) 15. artikuluan xedatutakoarekin, aurrekontu hori behin betiko onetsirik gelditu da. Hona hemen haren laburpena, kapituluka:

#### Gastuen egoera

KAPITULUA		ZENBATEKOA
I	Langile gastuak	77.724,85
II	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	108.788,27
IV	Transferentzia arruntak	29.475,00
VI	Inbertsio errealak	43.031,00
VII	Kapital transferentziak	36.000,00
<b>Gastuak guztira</b>		<b>295.019,12</b>

#### Diru sarrerren egoera

KAPITULUA		ZENBATEKOA
I	Zuzeneko zergak	115.056,93
II	Zeharkako zergak	6.500,00
III	Tasak eta bestelako diru sarrerak	5.250,00
IV	Transferentzia arruntak	109.468,99
V	Ondare bidezko diru sarrerak	40.791,00
VII	Kapital transferentziak	17.952,20
<b>Diru sarrerak, guztira</b>		<b>295.019,12</b>

Iragarki honekin batera, erakunde honetako lanpostu zerrenda argitaratzen da eranskin gisa, bat etorritz Euskal Autonomia Erkidegoko funtzio publikoaren Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin (6/1989 Legea).

**Eranskina**

Lanpostu zerrenda

A) Gaikuntza nazionala duten funtzionarioak. Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea.

Administrazio egoera: aktiboan. Lanbide kategoria: A1 taldea, 26. maila. Titulazioa: Zuzenbideko, Politika Zientzietako, Soziologiako edo Ekonomia eta Enpresa Zientzietako gradua. Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe. Berariazko osagarria: 20.677,02 euro. Betetzeko era: lehiaketa. Lantokia: administrazioa.

Urizarra, 2019ko maiatzaren 2a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO*